

ATEAK ZABALTZEKO JARDUNALDIA AKORDEOIA

2010eko otsailaren 20a

Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, akordeoi espezialitateari buruz informazioa jasotzeko jardunaldia. Bertan esku hartuko dute Iñaki Alberdi, Aitor Furundarena eta Miren Iñarga irakasleek, beraiek aurkeztuko baitituzte Musikeneko ikasketa-kurrikuloan akordeoari dagozkion irakasgai zehatzak. Musikeneko ikasleek ere parte hartuko dute, akordeoi espezialitateko ikasturte desbertinetakoek, hain zuzen ere.

HELBURUAK

- Musikene ikastegia Musika Eskoletako eta Kontserbatorietako ikasle eta irakasleei gerturatzea, eta aldi berean akordeoi espezialitatearen ikasketa-planaren berri ematea.
- Goi mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei eta beraien irakasleei sarrera-proben egituraren berri ematea, bai eta goi-mailan sartzeko beharrezkoa den mailari eta egoki den erreperitorioari buruzko informazioa ere.
- Musikeneko ikasleekin egiten den lana erakustea.

EGITARUA

- Informazio-hizketaldia honako gaiak landuz:
 - Sarrera-probak: egitura, beharrezko maila, interpretatu beharreko erreperitorioa, ebaluatzen diren edukiak, balizko ikasleen profila.
 - Espezialitatearen ikasketa-plana: osatzen duten irakasgaiak.
 - Musikenen eskeintzen diren akordeoiaren irakasgai zehatzak: derrigorrezko eta hautazko irakasgaiak. Ebaluaketarako irizpideak.
 - Musikenen akordeoi irakasgaiak irakasten dituzten irakasleen aurkezpena eta irakasgai bakoitzaren egitasmoaren laburpena.
 - Goi-mailako akordeoi graduonun etorkizuna. Trebakuntza, graduondokoak eta lan-aukerak.
 - Musikenen ikasketak egin dituzten ikasleen ibilbide pedagogikoa. Jatorri ezberdinak.
- Musikeneko egungo ikasleek eskeinitako entzunaldia, ikastegian egiten den lanaren erakusgai.
- Banakako eskola bat ikusi edo jasotzeko aukera.

NORENTZAT:

- Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleentzat.
- Musikene ikastegia eta akordeoi espezialitateko goi-mailako kurrikuloa ezagutzeko interesa duten irakasleentzat.

EGUNA

Larunbata, otsailaren 20a

Ordua: 10.00etatik 13.30etara

LEKUA

MUSIKENE

Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Miramar Jauregia

Mirakontxa, 48

20007 Donostia-San Sebastián

KONTAKTUA ETA INFORMAZIO ZABALAGOA

ialberdi@musikene.net